

ELIKADURA OSASUNGARRIA ETA JASANGARRIA



1. ESKUALDEKO ESPEZIALIZAZIOA

Ezaugarriak

Lehen sektorea eta eraldaketa sektoreak batuta, Nafarroako BEGaren % 7,5 da. 2014-2019 aldian BEGa % 15 inguru handitu da, gainerako sektoreetako batezbestekoa baino pixka bat beherago egonda

Lehen sektorea eta eraldaketa sektoreak batuta Lehen sektorearen eta eraldaketaren artean, 28.700 lanpostu daude (eskualdeko lanpostuen % 9,2). Lehen sektoreak 1.129 milioi euroko ekoizpen balioa izan zuen 2019an, eta 15.604 ustiategi eta 12.836 langile biltzen zituen. Eraldaketa sektoreak 755 enpresa eta 15.873 langile zituen 2019an, eta produkzioa 4.536 milioi eurokoa zen

Eraldaketa sektoreak eskualdeko esportazioen % 11,8 baino gehiago hartzen du (1.196 M €-ko esportazioak). Esportazioak % 40 inguru handitu dira 2014 eta 2019 bitartean (Nafarroako esportazio guztien batez besteko hazkundearen gainetik)

Azpi-sektoreen arabera, landareen ekoizpena nabarmentzen da (fakturazioaren % 43). Horien artean, barazki izoztuen eta giro tenperaturakoen enpresek dute fakturazio agregatu handiena, baina IV. gamako enpresak eta izoztuen enpresak dira gehien handitzen direnak. Ondoren, haragi produktuak, olioak, ardoak, okintza produktuak eta esnekiak daude

Merkatu nitxo gisa, plater prestatuak (37) eta gourmet estrategia (142) duten enpresen kopuru handia nabarmentzen da

Balio-katea

Enpresak:

- Ekoizleak: Grupo AN koop.so., Orbalaiz koop.so., Timac AGRO,...
- Eraldatzaileak: Berlys Corporación Alimentaria, Ultracongelados Virto, Congelados de Navarra, Viscofan, Florette (Vega Mayor), Agotzaina, Industrias Alimentarias de Navarra, Intermalta, Iberfruta Muerza, Harivasa 2000, Agrozumos, Elaborados Naturales, Grupo APEX, General Mills...
- Banatzaileak: Eroski, Grupo Uvesco...
- Industria lagungarria: Exkal, Talleres Urtasun, Smurfit kappa...

Jakintza entitateak: NUP, Nafarroako Unibertsitatea, CNTA, INTIA, CIMA, IdAB...

Laguntza entitateak: NAGRIFOOD, ALINAR, INTIA, UAGN, EHNE, UCAN...

Sortzen ari diren ekimenak

Startupak: Alimentación Sanygran, Coccus, Nutrinsect, Nucaps, Nulab, Greentech, Nutrición 3g, MOA Foodtech, Innomy Biotech, Ingredalia...

Proiektuak: PROTEVEG (landare proteinaren ekoizpena), NUTRIBIOTA (elikagaien eta osagaien diseinu adimentsua), NUTRI+ (adinekoen nutrizioa hobetzeko), ALINFA (12 urtetik beherakoentzako elikadura osasungarria), BIOFOOD eta BIOVID (osagai hartituei bioteknologia aplikatzeko eta mahatsondoak kontrolatzeko), IRIS IAFOOD (elikagaien fabrikazioan kalitatea monitorizatu eta kontrolatzea), ALISSEC (elikagai eta osagai osasungarri eta jasangarrien diseinua ekonomia zirkularretik abiatuta)...

Nazioarteko lankidetzak

GEX Bionavarre

Foodtemic sarea

Partnership Smart Sensor Systems 4 agrifood

Partnership Traceability and *Big Data* (applications in agrifood)

Partnership Nutritional Ingredients

Partnership European Food Packaging Platform

EIT FOOD

ERRIN - Food in regions

VANGUARD Initiative

Bioeconomy Platform (BIC)

2. IKUSPEGI ESTRATEGIKOA

2030 ikuspegia



Nafarroa Europako erreferentea da elikadura osasungarri eta jasangarrian, bereziki landare-elikaduran; kalitate handiko produktuak garatzen ditu, eta lurraldeko baliabide naturalak aprobetxatzen eta errespetatzen ditu.

FOKUA



- Landare-jatorriko produktu berriak
- Proteina alternatiboen garapena
- Ekoizpen ekologikoaren industrializazioa
- Azpiproduktuen balorizazioa

Joerak

Nekazaritzako elikagaien sektorean berrikuntzarako 4 palanka nagusi daude, eta horien artean konbinagarriak dira bereizketak sortzeko: jasangarritasuna eta zirkulartasuna, osasuna eta ongizatea, plazera eta praktikotasuna

Espainiarren % 45ek produktu osasungarriagoak eskatzen dituzte.
Gehitu egin dira "Clean Labels" izenekoak

Animalia jatorriko proteina gutxiago kontsumitzen dira, ustez hain osasungarria ez delako, jasangarritasunagatik edo animalien duintasunagatik. Ordezko proteina alternatibo berriak garatzen ari dira

Espainian, produktu ekologikoen kontsumoa % 20tik gora handitzen da urtean, eta hazkunde marjina handia du, beste herrialde batzuekin alderatuta

Hoztutako plater prestatuen, *Meal Kits*en eta janari etnikoaren kontsumoaren hazkunde handia (batez ere janari mexikarra eta asiarra eta prestatzeko prest dauden kit formatuan)

Gourmet produktuen salmentak % 6 handitu dira: ohiko produktuenak halako bi

Kuota oso txikia bada ere, *online* erosketek gora egiten jarraitzen dute etengabe (% 20)

Tokiko, sasoiko eta hurbileko produktuen kontsumoaren joera

Etiketikan kanpoko kontsumoa handitzen doa etxearen barnekoaren aurrean

Produktu berrien merkaturatze kopurua urtetik urtera handitzen ari da, eta ekologia eta osasuna ardatz duten merkaturatzeak nabarmentzen dira

Nazioarteko ikuspegia

Europako 'Farm to Fork' strategiaren helburua da elikagaiak ekoizteko sistema jasangarri bateranzko trantsizioa bizkortzea, lehen mailako ekoizpen prozesuak, fabrikazio eta banaketa prozesuak eta etxeetako elikagaien kontsumoa jasangarriak izan daitezen, eta, aldi berean, prebentzioz jardutea elikagaien galera saihesteko eta elikagaien xahuketa murrizteko (*Food Waste*)

Pestizida eta ongarri kimikoen arriskua murrizteko neurriak hartuko ditu Europako Batzordeak, 2030ean nekazaritza lurzoru organikoa % 25 izan dadila lortzeko helburuarekin

Batzordeak proposatuko du etiketa batzuk normalizatzea eta erabiltzea, produktuak jasangarritasun eta nutrizio irizpideei jarraikiz egin direla ziurtatzen dutenak

Europako Batzordearen Europa Horizonte finantzaketa programak trantsizio berdea eta digitala bizkortu nahi du. 6. klusterraren ikerketa programak 'Farm to Fork' strategiaren helburuak garatzen lagunduko du, eta pertsonen elikadura eta nutrizioa bermatuko ditu

Lotutako GJHak:



3. LAN-ILDOAK

	Lan-ildoak	EA	TE	TD
01	Landare-irtenbide berriak, komenigarriak, eskuragarriak eta erabilgarriak	●		
02	Landare-proteinaren eta beste proteina alternatibo batzuen garapena	●		
03	Azpiproduktuak eta hondakinak balorizatzea produktu berriak sortzeko, berdin azken produktua edo osagaiak izan	●	●	
04	Elikagai osasungarriak eta funtzionalak garatzea eta nutrizio pertsonalizatuan aurrerapenak egitea	●		
05	ekoizpen ekologikoa eta haren industrializazioa sustatzea nekazaritzako elikagaien enpresetan	●	●	
06	Balio erantsi handiko eta lurraldeari oso lotutako tokiko produktuaren kontsumoa eta ustiapena sustatzea	●	●	
07	Gutxi prozesatuta dauden eta tratamendu txikiagoa duten elikagaietara bideratzea	●	●	
08	Sektoreak baliabide naturalarekin duen konpromisoa: ur gutxiago kontsumitzea, ongarriak murriztea, fitosanitarioak		●	
09	Elikagaien balio bizitza luzatzea, elikagaiak alferrik ez galtzeko	●	●	
10	Doitasunezko nekazaritzaren garapena. Laboreak kudeatzeko sensorizazioa eta teledetekzioa	●	●	●
11	Elikagaien segurtasuna eta trazabilitatea bermatzeko teknologia berriak garatzea eta ezartzea	●		●
12	Online salmenta bideen bilakaera eta kontsumitzailearekiko lotura	●		●

Oharra: EA: Enpresa-aukera TE: Trantsizio Ekologikoa TD: Trantsizio Digitala

4. GAITASUN TEKNOLOGIKOAK

Lurren eta laboreen babesa	Estaldura laboreak, lurzoruaen agroekologia, fitopatologia, bio intsektizidak eta ongarriak Lurretan mikroorganismoak identifikatzeko teknologia omikoak
Doitasunezko nekazaritza	Aldagai agronomikoen sensorizazioa Adimen artifizialean oinarritutako nekazaritzako eredu iragarleak Teledetekzio datuen plataforma
Prozesatzeko eta kontserbatzeko teknologiak	Kontserbatzeko teknologia aurreratuak Prozesatzeko teknologia berritzaileak Gehigarririk gabeko kontserba
Elikagaien segurtasuna	Biosentsoreak Trazabilitate automatikoa Irudi teknologiak: hiperespektrala, UV, etab. Analisi teknika espezializatuak
Elikadura funtzionala eta pertsonalizatua	Mikrobiologia industriala: probiotikoak, prebiotikoak, osagai berriak Kontsumitzaileen eta eskaintzen arteko harremanetarako plataformak Nutrizio pertsonalizatua
Ontzi jasagarriak	Ontzi jangarriak Ontzi biodegradagarriak